

► Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A. SOZietATERAKO LURPERATZAILE LANPOSTUA KONTRATATZEKO ETA LANGILE ALDETIKO PREMIA EZ IRAUNKORRETARAKO LAN-POLTSA SORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN BALDINTZAK.

LEHENIK. HAUTAKETA-PROZESUAREN XEDEA.

Hautaketa-prozesu honen xedea da Polloe, Altza eta Igeldoko udal hilerriak eta Polloeko errausketa labea kudeatzen dituen udal sozietaterako, Donostiako Hileta Zerbitzuak, S.A. sozietaterako (aurrerantzean, POLLOE), LURPERATZAILE lanpostu bat kontratatzea.

Halaber, LURPERATZAILE lan-poltsa bat sortuko da hautaketa-prozesua gainditu arren eskainitako lanpostua eskuratu ez duten hautagaien artean, Sozietateak langile aldetiko premia ez iraunkorrak estaltze aldera.

Deialdia publikoa eta irekia da eta, hautaketa-prozesua langileak hautatzeaz arduratzen den enpresa baten, OTEIC Taldearen, lankidetzarekin burutuko da, dokumentu honetan jasotzen diren baldintzak eta berdintasun, meritu, gaitasun eta publizitate printzipioak betez.

Aipatu lan-poltsaren sorreraren ondorioz, hautaketa-prozesua amaitzen den egunetik aurrera, ondoriorik gabe geratzen dira automatikoki aurretiaz dauden Lurperatzaile lan-poltsak.

Hauek dira lanpostuari esleitutako zeregin nagusiak:

- Lur-emateak
- Hobitik ateratzea
- Erredukzioak
- Fosak hustea
- Hilobiak garbitzea
- Aldizka lore-zaintza, igeltserotza, iturgintza, pintura eta beste diziplina batzuetako lanak

Lanaldia astelehenetik ostiralera artekoa da, 08:00-14:00 bitartean, eta larunbatetan 08:00-13:00 bitartean.

2021ean lanposturako esleitutako ordainsaria 26.538,12 euro gordinekoa da urtean.

Kontratazioa jardun osoko lan-kontratu mugagabea formalizatuz burutuko da.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko aukera izango dute parte hartzeko eskaerak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean betekizun hauek egiaztatzen dituztenek:

- A) 16 urteko adina beteta izatea eta nahitaezko erretiroko gehieneko adina ez gaindituta izatea, parte hartzeko eskaeraren epea amaitzen den egunez.
- B) Nazionalitatea: Europar Batasuneko estatu kide bati dagokion nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak egin eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Tratatuak aplikatuz, langileen joan-etorri askea aplikagarri zaion Estatu batekoa izatea.

Halaber, parte hartzeko aukera izango du Europar Batasuneko estatu kideetako nazional direnen ezkontideak, betiere, zuzenbidez bananduta ez baldin badago, eta baita haren ondorengoak eta ezkontidearenak ere, era berean, betiere, bi ezkontide horiek zuzenbidez bananduta ez baldin badaude, ondorengo horiek 21 urtetik beherakoak baldira edo adin horretatik gorakoak izanda haien baitan bizi badira.

Halaber, aurreko lerroaldetan sartzen ez diren pertsona atzeritarrek parte hartzeko aukera izango dute, baldin eta legezko egoitza Espainiako estatuan baldin badute. Hautatuak izango balira, kontratuaren xede den jardura burutzeko administrazio-baimena izan behar dute kontratua formalizatu aurretik.

- C) Arotzeria, igeltserotza, lore-zaintza edo mantenuarekin lotutako beste lanbide batzuekin zerikusia duten espezialitateetan Teknikari titulua izatea, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea (Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloa, Lehen Gradu Lanbide Heziketa LH1).
- D) Esperientzia profesionala: Gutxienez 2 urteko esperientzia mantenu-lanetan edota ofizioetan (arotzeria, igeltserotza, lore-zaintza, pintura, iturgintza, etab.).
- E) B gidabaimena izatea.
- F) Lanak burutu ahal izateko funtzio-gaitasuna izatea: gaixotasunik ez izatea eta dagozkion funtzioak betetzearekin bateraezinak diren muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

Hautagai diren pertsonen betekizun guztiak bete behar dituzte parte hartzeko eskaera egiteko epea amaitzen den egunerako eta betekizun horiek mantendu behar dituzte lan-kontratua sinatu arte, E) atalean adierazitakoa salbuetsita, azken hori mediku zerbitzuak ziurtatu beharko du kontratazioa egin baino lehen.

Prozesuko edozein unetan hautaketa batzordeak jakingo balu izangai den pertsonen batek deialdian eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituela, kanpoan geratuko da, aldez aurretik pertsona interesdunari jakinaraziz.

- Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEA.

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa da, deialdi hau prentsan argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, zehazki, 2021eko martxoaren 2tik martxoaren 21era, biak barne.

Parte hartzeko eskaera aurkezteko prozesua:

- a) Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak **Eranskinako ereduaren arabera inprimakia bete beharko dute, bigarren baldintzan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazita**, beti parte hartzeko eskaera aurkezteko epea amaitzen den eguna aintzat hartuta.
- b) **Aipatu inprimakiarekin batera, Curriculum Vitae eguneratua atxikiko da.**
- c) Balioesteko alderdien inguruko datuak adierazi beharko dituzte. Dena den, horiek egiaztatzeko prozesuan zehar horretarako epealdi jakin bat irekiko da oraindik prozesuan mantentzen diren hautagai diren pertsonen inprimakian adierazitako merituen egiaztagiria helaraz ditzaten.
- d) Hautagairen batek hautaketa-prozesuaren garapenean zehar aintzat hartu beharreko desgaitasunen bat baldin bada, inprimakian burutzekoak gainerako parte-hartzaileen baldintza berdinetan burutzeko denbora edota bitarteko aldetik behar dituen egokitzapenak eskatu beharko ditu, betiere, horrekin probaren edukia andeatzen ez baldin bada, eta eskatzen den gaitasun maila murriztu edo hutsaltzen ez baldin bada. Hautaketa batzordeari dagokio eskatutakoa onartzea egokia den ala ez balioestea. Halaber, desgaitasun-maila aitortzeko ziurtagiria atxikiko da, hala badagokio.

Parte hartzeko eskaera aurkezteko lekua edo bitartekoak:

- Helbide elektroniko bidez: polloe@oteic.com
- Helbide honetan: OTEIC Taldea, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina 1. solairua, 20018 Donostia. Presentziazko aurkezpenerako ordutegia 9:00-18:00 bitartekoa da, astelehenetik ostiralera.

LAUGARRENA. HAUTAGAIAK ONARTZEA.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, horiek berrikusi egingo dira bigarren baldintzan eskatzen diren betekizunak betetzen ote diren egiaztatzeko.

BOSGARRENA: HAUTAKETA-PROZESUA.

5.1. Horri begira Hautaketa Batzorde bat osatuko da. Bertako kide izango dira Zuzendari/Gerentea, Lurperatzaileen Arduraduna eta Ordezkarri Sindikala, hautaketa-prozesua kudeatu eta, zehazki, aurkeztutako eskaerak balioesteko xedez, eta baita hautaketa-prozesuko fase ezberdinetako proba eta merituak kalifikatze aldera ere.

Hautaketa Batzordeak hautaketa-prozesuan zehar objektibotasuna bermatuko du. Halaber, hura garatzen den bitartean agertzen diren zalantzak ebazteko eta prozesua arau honen arabera garatzeko beharrezkoak diren akordioak hartzeko eskumena izango du, oinarri hauetan aurreikusten ez diren kasuekin lotuta jarraitu beharreko irizpideak ezarriz.

Hautaketa Batzordeak idatzitako ariketetako edukien konfidentzialtasuna bermatzeko nahiz parte hartzen duten pertsonen nortasuna ezagutarazi gabe ariketa horiek zuzentzea bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu. Halaber, fase bakoitzeko emaitzak baliozkotuko ditu eta ematen diren gorabehera guztiak ebatziko ditu.

Hautaketa Batzordeak bere lanak burutzeko aholkulariak edo enpresa espezializatuak gainera ditzake egokitzen jotzen dituen kudeaketak edo probak burutzeko, esate baterako, hautagaitzak jasotzea, probak diseinatzea, egikaritzea, kasu batzuetan horiek balioestea, etab.

5.2. Hautaketa-prozesua horrela garatuko da:

1. FASEA: Hautagaitzen aurretiko hautaketa: Lanpostuaren eta zehaztutako betekizunetan oinarrituta, OTEIC Taldeak objektiboki egokien diren hautagaien gainean aurretiko hautaketa proposamen arrazoitua egingo du.

2. FASEA: Hautagaitzen azterketa: Aurreko Fasean aurretiaz hautatutako hautagaitzak aztertuko dira, hautagaiei proba ezberdinak egiteko deialdia luzatuz. Hauek izango dira aztertze arloak:

- **Analisi Pertsonala:** Elkarriketak edota bestelako proba pertsonalak edota taldekakoak eginez, hautagai diren pertsonen lanpostuaren profilaren ezaugarriekiko duten egokitasun-eta gaikuntza-maila balioeste aldera.
- **Trebetasunaren eta Gaikuntzaren analisisa:** betetzeko lanpostuaren eskakizunekin zerikusia duten proba psikoteknikoak eginez.
- **Analisi Profesionala:** Arlo hauen inguruko proba teoriko eta praktikoak eginez:
 - Bulegotika: Word eta Excel.
 - Hilerri eta errausketa-labeekin eta udal hilerri eta errausketa-labeetan zerbitzua burutzearekin lotutako osasun araudia (202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen sanitate alderdien Erregelamendua onartzen duena). Hemen eskuragarri:

► Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

<https://www.donostia.eus/ataria/documents/4566998/4567212/Hileta+Sanitate+Araudia+-+Reglamento+de+Sanidad+Mortuoria.pdf>

- Udal hilerrietako zerbitzuak emateko ordenantza orokorra: Hemen eskuragarri:

https://www.donostia.eus/ataria/documents/4566998/4567212/Servicios_cementerios+ordenanza+general+donostia.pdf/e9bf866e-2f89-40ab-8b4f-a8956187f93c

- **Merituen Balioespena**, kontuan hartuz prestakuntza eta gaikuntza osagarria, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen denaz aparte lanpostuarekin lotutako esperientzia profesionala eta Euskararen ezagutza (B1 maila kontuan hartzeko gutxieneko maila izanik). Hautaketa batzordearen ardura izango da prestakuntza eta gaikuntza edukien ezaugarriak eta esperientzia profesionala balioestea aipatu lanposturako ekar dezakeen onura kontuan izanik.

Fase hau burutu aurretik, analisi faktore bakoitzeko haztapen pisuak eta gehienezko eta gutxieneko puntuazioak adostuko dira.

Analisiaren ondorioz Eraitzen Koadro Haztatua eskuratuko da hautagai bakoitzak eskuratutako puntuazioekin.

3. FASEA: Eraitzak aurkeztea: Eskuratutako eraitzak aurkeztuko dira (Eraitzen Koadro Haztatua) onarpena emate aldera.

Egokitzapen berezia behar duten dibertsitate funtzionala duten pertsonekin egiteko probak burutzeko beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasunean aritu daitezen, betiere, probaren edukia andeatzen ez bada, eta eskatzen den gaitasun maila murriztu edo hutsaltzen ez bada.

SEIGARRENA. LANERATZEA ETA LAN-POLTSA.

Behin betiko sailkapen hurrenkera zehazteko hautaketa-prozesuko faktore ezberdinen analisia eskuratutako puntuazioak batu egingo dira, eta horrekin lehentasun-ordena zehaztuko da.

Hautatua izango den hautagaia Sozietatearen egiazko erakundeko premien arabera laneratuko da eta bertako araudiaren arabera arituko da lanean.

Hautaketa-prozesua gainditu arren, eskaintako lanpostua eskuratzen ez duten hautagaiak LURPERATZAILE lan-poltsan sartuko dira Sozietateak langile aldetik lituzkeen premia ez iraunkorrak estaltze aldera, eta ondorik gabe geratuko dira automatikoki, hautaketa-prozesua amaitzen den egunetik aurrera, aurretiaz lanpostu horrekin lotuta leudeken lan-poltsak, hala badagokio.

► Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Deialdi honen ondorioz sortzen den lan-poltsa indarrean izango da Sozietatearen erakundeko premien ondorioz deialdi berri bat burutzen ez den bitartean.

ZAZPIGARRENA. KOMUNIKAZIOA HAUTAGAIEKIN.

Hautaketa-prozesua garatzen den bitartean hautagaiekin dagokion komunikazioa egiteaz OTEIC Taldea arduratuko da.

ZORTZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babestearekin lotuta xedatutakoarekin bat etorriz, hautaketa-prozesuan parte hartzen duten pertsonen jakinarazten zaie:

- Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. da hautaketa-prozesuan parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalak tratatzearen erakunde arduraduna. Honatx haren harremanetarako datuak:
Posta helbidea: POLLOE PLAZA 2, 20012 P.K., Donostia (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 483 540
Helbide elektronikoa: polloe@donostia.eus
- Datuen Babeserako Ordezkariaren harremanetarako datuak: dbo@donostia.eus
- Jasotako datu pertsonalak hautaketa-prozesua nahiz erakunde arduradunak sortzeko lan-poltsa kudeatzeko helburu bakarrarekin tratatuko dira.
- Datuen tratamenduaren oinarri juridikoa hautaketa-prozesuan beren borondatez parte hartzen duten pertsonen baimena da. Parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalak jakinaraztea ezinbestekoa da hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko. Horrenbestez, horiek ez helarazteak prozesu horretan parte hartzeari uko egitea adierazten du.
- Helarazitako datu pertsonalak OTEIC Taldeak (Oteic Consulting Group, S.A.) tratatuko ditu, hautaketa-prozesuaren kudeaketan kolaboratzen duen erakunde modura, tratamenduaz arduratzen den erakunde izaeraz.
- Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak hautaketa-prozesua garatzen den bitartean eta sortutako lan-poltsa mantentzen den bitartean gordeko dira, azken hori berritzen den arte.
- Pertsona interesdunek datuen tratamendua eta eramangarritasuna eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurkatu eta mugatzeko eskubideak erabili ditzakete beren datu pertsonalei dagokienez, araudi aplikagarriak ezarritako baldintzetan, idatzizko jakinarazpen bat igorri aurretik tratamenduaren arduradunarekin lotuta adierazitako posta helbidera edo helbide elektronikora. Halaber, aukera izango dute, baimena edozein unetan kentzeko eta erreklamazio bat aurkezteko eskumeneko kontrolerako agintaritzaren aurrean beren eskubideak erabil daitezen.

► Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

- Hauek dira tratamenduaren xede diren datu pertsonalen kategoriak:
 - Identifikaziorako datuak
 - Ezaugarri pertsonalak
 - Akademikoak eta profesionalak
 - Hala badagokio, osasunari buruzkoak datuak
- Hautaketa-prozesuan parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak OTEIC Taldearen bidez eskuratuko dira.

Donostia, 2021eko martxoak 2

Gorka Rueda
Zuzendari-Gerentea